



LEGAZPIKO UDALEKO LAN-KONTRATUDUN LANGILEEN PLANTILAKO UDAL-EUSKALTEGIKO IRAKASLE-PLAZA BAT BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUA.

Oposizioaldiko bigarren proba egiteko tokia, eguna eta ordua.

Bigarren proba, derrigorrezkoa eta baztertzaila izango da aurreko ariketa gainditu duten izangai guztientzat.

Proba hau egin beharreko zereginekin lotutako kasu praktiko edo teoriko-praktiko bati edo batzuei buruzkoa izango da. Kasu horiek deialdi honetako II. eranskinean jasotako gaitzerrenda espezifikoaren edukian oinarrituko dira.

Proba hori gehienez 25 punturekin kalifikatuko da, eta gainditzeko gutxienez 12,5 puntu lortu beharko dira.

Probak 2 ariketa izango ditu:

- **Idatzizkoa:** 3 ordu izango dute izangaiek epaimahaiak erabakitako gai bat idatziz garatzeko (300 hitz gutxienez). Zati hau 15 punturekin kalifikatuko da. **Ariketa hau ekainaren 10ean egingo da, udal euskaltegian 10etan.**
- **Ahozkoa:** 10 minutu izango dute izangaiek epaimahaiak erabakitako gai bat ahoz garatzeko. Zati hau 10 punturekin kalifikatuko da. **Ariketa hau ekainaren 11n egingo da udal euskaltegian,** epaimahaiak egindako zozketan ateratako hurrenkeraren arabera:
 - **9:00etan honako NANA duten hautagaiak daude deituak eta elkarren segidan egingo dute ariketa: ***6210**, ***0898** eta ***9500**.**
 - **9:45ean honako NANA duten hautagaiak daude deituak eta elkarren segidan egingo dute ariketa: ***9858**, ***7780** eta ***5529**.**

Proba hau egiteko, izangaiek ezingo dute inongo agiririk erabili.





Ebaluazio-irizpideak honakoak izango dira:

- o Eskatutakoari zenbateraino erantzun zaion
- o Azalpenen egokitasuna eta sakontasuna
- o Edukien arteko harremanak eta lotura kontzeptualen garapena
- o Gogoeta pedagogikoa, planteamenduen bideragarritasuna.
- o Hizkuntzaren zuzentasuna eta aberastasuna

Izangaien **anonimotasunari dagokionez**, honela bermatuko da:

Izangai bakoitzari honakoak emango zaizkio: txartel bat zenbaki batekin (bi kopia emango zaizkio, horietako batekin gera dadin), gutun-azal handi bat eta gutun-azal txiki bat. Zenbakia duen txartel hori bere datu pertsonalekin beteko du izangaiak, gutun-azal txikian sartuko du eta itxi egingo du. Gutun-azal hori idazkariaren zaintzapean geratuko da azterketa bakoitza zuzendu arte. Izangaiek esleitutako zenbakiarekin identifikatuko dute azterketa (erantzun-orri **GUZTIETAN**, jarri beharko da esleitutako zenbaki hori) eta bukatu ondoren gutun-azal handian sartuko dute. Gutun-azal handi hori epaimahaikideei emango diete.

